

Maite Berriozabal gai jartzaileak puntua: “Etorkizunak dakar hainbeste sorpresa”. Maialen Lujanbioren erantzuna: “batzuetan arrosa besteetan beltza / nahiz eta zilegi den denontzat ametsa / etorkizun txarrena etorkizun eza”. Etorkizunari begiratzen dio *etzi.pm* atari digitalak, Etzi Portu Maritimoak. Baina nahi du bizi unea. Bertsolari Txapelketa Nagusiko finalean izan da Etzi, eta gozatu du zortzi bertsolari aparten kantuekin. Gai jartzaileak puntua: “Unea bizitzea genuke onena”. Lujanbiok: “adibidez gaur eta hementxe gaudena / gozatu lagunak ta ahaztu zure pena / gero etorriko da gero datorrena”.

Igor Estankonaren testu bat, *Hegats* aldizkariaren zenbaki berrian. Poesiaz. “Gaur eguneko - eta etorkizuneko- poesia izango da, nik uste, gure alde eta kontra idatzitako ariketa biderkatzaile hori, ez duena ahazten munduaren kristal guztia norbere kristaletik begiratzean”.

Lujanbio, txapelduna. “Lan gogor baten emaitza”, esan du prentsaurreko laburrean. Esther Lopez Epelde itzultzaileak txio batean ondo laburbildu duen moduan: “Transexualitatea, drogazaletasuna, prostituzioa, amatasuna... Gai horiek lantzen dituen eran landuz ate berriak irekitzen eta kate zaharrak hausten laguntzen ari da Maialen, gizartearen, emakumeen eta hizkuntzaren kateak”. Estankonaren aipura itzuliz, munduaren kristal guztia norbere kristaletik begiratzen. Mamiz eta azalez, bertso liluragarriak kantatuz. Edertasunetik. Heroinak zimeldutako lore batekin, Barakaldoko BEC zutik jarriz. Hasierako agurrean: “Gure buruaren kontra, gure munduaren alde”. Eta sentipena, Etzik BECeko giroan sentitu duena: “Trinko, baina ez artalde”.

Goizeko lehen bertsoalditatik aritu da Lujanbio koska bat gorago. Saio biziak. Beste zazpi bertsolariak ere bertso ederrak kantatuz. Sustrai Colinak oroitu digu: “Pertsona da zinezko aberastasuna”. Aberastasun pertsonaletik asko, BECen, bai antolatzaileen eta boluntarioen partetik. Entzuleenartetik ere bai.

13:53ean ikusi dugu entzuleen lehen olatua. Aurretik, Unai Agirre Carles Puigdemonten tokian jarri da. San Tomas egunean datorrena azaldu du kantuz: “Orduan jakingo det etxera joan edo neurean segi”. Beñat Gaztelumendi Marokotik iritsitako 12 urteko mutikoaren rolean, eta ikaskideei esan die: “Jar gaitezen aurrez aurre, eta hitz egin dezagun”. Esaldiak balio lezake Kataluniarako, baina Madrilek errepresioa baino ez du aukeratu. Gainontzean egunerokotasunean dauzkagun arazoekin ere hala beharko genuke: “Jar gaitezen aurrez aurre, eta hitz egin dezagun”. Sarri ez dugu nahi. Sarri ez, Sarriegi bere azkeneko txapelketan kantuan. Nonbait ikusten badugu, doinu honekin oroituko gara, noski: <http://bdb.bertsozale.eus/web/doinutegia/view/3483-irun-badaukazu-zerbait>

“Zapore onarekin” doala esan du Sarriegik prentsaurrekoan. Eta agurrean kantatu: “Aurkituko dugu elkar Euskal Herriko plazetan”. Azkeneko txapelketa Igor Elortzak. “Agur esaten jakin behar da. Aurrera bolie”. Edozein plazatan ere gozamina izango da Elortzaren kantaera fina entzutea.

Arratsaldeko saioan, zaletuak beroago. Olatuak sinkronizatuagoak. Bertsolariak taula gainean, gai guztiak ederki surfeatzen. Nahiz eta bakarkakoak iruditu zaizkigun, gehienak, dramara oso joak, irribarre txikiren bat atera da. Adibidez, Colinak Iñigo (Urkullu izango zela pentsatu dugu) lehendakariaren tokia hartu duenean. “Nahiz eta ordaindik mintzatzen naizen makinaren gisara / klaseko tontoa zena, orain lehendakaria da”.

Ez zen Eusko Jaurlaritzako lehendakaria Parisko manifestazioan azaldu. Aitor Mendiluzek buruz

burukoan gogoratu zuenez: “Bidea ez da amaitzen Parisen”. [Ez zen nolanhikoa izan Pariskoa](#), eta ez zen nolanhikoa izan *bakearen artisauen* lana. Artisauak, hitzaren artisauak BECeko zortzi finalistak. Bat-bateko bertsoan, diskurtsoa Lujanbiorena: “Bakea ez da inoiz helduko, bakea joatea da”. Joatea. “Saiatzen ez dena, ez da inora iristen”, kantatu du Mendiluzek beste une batean, gaztetan ikasi ez eta orain saiatzen ari denean. Asko daukagu guk ikasteko bertsolariet. Ez bakarrik zortzi finalistez. Eider Rodriguezek berriki idatzi zuen finalaren aurretik entzundako gaiez: “[Aspaldi honetan bertso munduan duela gutxira arte isilduta egon diren gorputzak ari dira azaleratzen: emakumeak, gizon-ez-gizonak, ubeldutakoak, homosexualak, haurdunak, itsuak, down sindromedunak, zaintzaileak, zaharrak, harrerako haurrak, minbizidunak, etorkinak, ezinduak, hil hurren daudenak, erekzioa galdu dutenak, Frida Kahloak eta Mohamedak..](#)”. Gizartean dagoena, bat-bateko bertso borobiletan -beno, agian, baten bat ez da izan hain borobila-. Baina ziur naiz Euskal Herritik kanpo iritsitako inork finala ikusten badu, eta bertsolariet egiten dutenaz jabetzen bada, ez dela epel etxera itzuliko.

Amets Arzallusek duela lau urte bertso hobeak egin zituela nabari da, baina bertsoan aritzeko jarrera, txalotzekoa. Hala esan du *Argia*-n: “[Uste dut bertso bakoitzak bizi garen garaian lekukotasuna ematea zor duela, eta nik, bizi dugun momentu honekiko nire kezka eta niri zer pentsatua eman didaten gaietatik zer pentsatu pixka bat eragin nahi dudala](#)”. Kazetaritzaren ikuspegitik ere txapelketari adi egotea interesgarria izan dela esango nuke. Hitzen artisauen esaldiengatik eta ikuspuntuetatik, batetik. Eta, bestetik, egon direlako telebista saio ederrak, proposamen iradokitzaileekin: [Txapelpekoak](#), [Aulki-jokoa](#) eta [Zautela](#), besteak beste.

Azkenik, Iñaki Muruak esan bezala, “denek egin dute lan aipagarriren bat finalean”. Aipagarriak eta nabarmentzeko modukoak asko. Eta bizi dugun hori guztia Bertsozale elkarterari esker izan da. Kontatu digutenez, 72 lagun daude Bertsozale elkarterako lanean. Ez dago halako egiturarik euskal kulturari, ez literaturari, ez antzerkian, ez zineman, ez arte plastikoetan. Muruak erreleboa emango dio hilabete batzuk barru elkartereko lehendakari berriari. 2005etik aritu da zeregin horretan, eta hunkituta mintzatu da final osteko prentsaurrekoan.

Zorte ona opa diogu iristen den lehendakari berriari. Zorte ona bertsozaleentzako. Bertsozaleentzako ez dadila izan erkin. Nahiz eta txapelketak kantatu duen, sare sozialetatik hartuz, eta bere buruari barre eginez: “erkin eta jarrai”. Opa diogu bertsoari etorkizun bat goxoa eta beroa. Euskal kulturari dena ez da bertsoa, baina BECen ikusitakoak eman digu indarra. Oihana Iguaranek Iruñeko finalerdian kantatu zuen moduan: “Irautea ez da dena, ospa dezagun garena”. Jarrai dezagun, luzaroan ospatzen. Eta oroitu Mendiluzek esana: “Ni ez baldin banaiz mugitzen dena, beste norbait izango da!”.



Maialen Lujanbioren agurra horra, gerokoentzat:

Herri hau herri egin al dugu
ze eman du bizikidetzak?
Zenbat eman du euskalduntzeak
ez behar beste guretzat.
*40 urte eta garaia da
egurasteko ametsak
Akaso hortan bertsolaritza ona da adibidetzat
Beti ez du goitik behera egiten
transmisioaren trentzak
Guk behetik gora ikasi dugu
ta zabaldu muga ertzak
Lehengoe kin ta gaurkoengandik
txapel hau gerokoentzat.*

etzi.pm
ETORKIZUNA
IDAZTEN

Zabaldu:

- [Click to share on Twitter \(Opens in new window\)](#)
- [Click to share on Facebook \(Opens in new window\)](#)
- [Click to share on Telegram \(Opens in new window\)](#)
- [Click to share on Pocket \(Opens in new window\)](#)